ONDARROA. Ekimenetan oinarritu da, baina udaletik «nahiko diru jasotakoak» albo batera dagoz, esate baterako

Kultur batzordeak egin dau diru laguntzen banaketea

Udalak 18.000 euro banatu ditu taldeen artean 2001eko urte amaierako diru laguntzetan

Lore Bengoetxea

Ondarroako Udaleko Kultur batzordeak 2001eko urte amaierako diru laguntzen banaketea egin dau kultur taldeen artean. Danetara, 18.030,36 euro banatu ditu (hiru milioi pezeta), beste gauza batzuen artean, bakotxak egin dituan ekintzak kontuan hartuta.

Ion Iñaki Kultura batzorde buruak argitu dauenez, joan zan urteko diru laguntzen azken banaketea egineran, kopuru finkoa (hau da, talde bakotxari talde izatearren emoten jakona) 240,04 eurotik 180,03 eurora jeitsi da (40.000 pezetatik 30.000 pezetara). Jeitsierearen arrazoiak emon ditu. «Hartutako erabagiari esker, ekintzen atalean diru gehiago egongo da», argitu dau Kultura batzorde buruak.

Diru laguntzak emoteko orduan zenbait gauza ez dira kontuan hartu: barne-antolakuntza edo promozino ekintzatzat jo leitekezanak, udaletik nahiko diru jaso daben ekintzak eta «hauteskunde edo antzerako ekintza partidistetan parte hartutako ekintzak».

Talderik talde

Ondarroan 18 kultur talde dagozanez, 3.245,47 euro (540.000 pezeta) banatu ditu atal honetan. Ekintzen artean banatu dan diru kopurua 14.784,9 eurokoa da (2.460.000 pezeta), hau da, ekintza bakotxeko 74,67 euro (12.424,242 pezeta). «Talde gehienek datuak behar dan modura aurkeztu ditue, nahiz eta batzuek ekintzen balorazinorik egin ez daben», azaldu dau Udalaren Kultur batzordeak.

Holan, Ondarroako akordeoi taldeak 553,66 euro jaso ditu (92.121 pezeta); Bertsolari taldeak 1.151,03 euro (191.515 pezeta); Bolo-Bolok 703 euro (116.970 pezeta); Jazz taldeak 254,97 euro (42.424 pezeta); Olee produziñoik 927,01 euro (154.242 pezeta); Ondarroako ballet eskoleak 628,33 euro (104.545 pezeta); Unanue fundazinoak 329,65 euro (54.849 pezeta); Ondarroako orfeoiak 703 euro (116.970 pezeta); Herriko txistulari taldeak 478,99 euro (79.697 pezeta); Unanue Kamara Koralak 777,67 euro (129.394 pezeta); Kresala Kultur Alkarteak 2.868,47 euro (477.273 pezeta); Antiguako Ama abesbatzeak 1,225,7 euro (203.939 pezeta); Arranondo Kultur alkarteak 1.524,38 euro (253.636 pezeta); Artelan Kultur Alkarteak 1.375,04 euro (228.788 pezeta); Kalandi Kultur Alkarteak 404,32 euro (67.273 pezeta); Ondarroako xake taldeak 1.524,38 euro (253.636 pezeta); eta Txirrimorraski aisialdi taldeak 1.599,06 euro (266.061 pezeta).



NEKANE AKARREGI

Eskoletako umeak batera joan dira kalejiran

Joan zan urteko eguraldi eskasa gogoratuta hasi eben atzo, Ondarroan, eskoletako umeen kalejira koloretsua. «Aurten, Lorentzok ez dau hutsik egin», esan eben irakasle eta gurasoek, zeruari begira. Lantzeko zortzikoaren musikeagaz dantzan, Herri Ikastetxe Publikoko eta Zubi Zahar eta Txomin Agirre ikastoletako ume, irakasle eta gurasoek herri guztia zeharkatu eben, ikusleeen txalo zaparradea jasoten eben bitartean. Azkenean, esfortzuak ordaina euki eban, txikienentzat Hortzmuga antzerki taldearen saioa antolatu eben eta.

Alkateak eta alkateordeak soldatea erdi bana egingo dabe aurten

L.B.

Udalaren azken batzarrean, alkatearen eta alkateordearen lansaria erdi bana egitea erabagi eben, oposizinoko taldeek kontrako botoa emon arren.

Loren Arkotxa EHko alkateak proposamena aurkezteko arrazoiak emon zituan azkenengo udalbatzarrean. «Koldo Ituarte alkateordeak, orain arte, dedikazino erdia euki dau, baina praktikan egun osoa emoten dau udaletxean. Horregaitik, dedikazinoa egun osokoa izatera pasatzea eta alkateak eta alkateordeak soldatea erdi bana egitea proposatu dogu», adierazo eban. Holan, alkateari soldata zati bat jeitsi eta alkate-ordearena igon dabe. Bakotxak 20.000 euro jasoko ditu urtean.

Oposizinoaren kritikak

EAJk eta EAk ezezkoa emon eben. Aitor Maruri jeltzaleak bere alderdiaren jarrerea azaldu eban. «Legealdi hasieran zalantzan jarten genduan alkate-ordeari lansaria emoteak ez ete eban esan nahi alkatea ez zala egongo egun guztietan. Biak egon beharra dagoela uste bada, ondo dago, baina alkatearen dedikazinoa ziurtatuta», kritikau eban Marurik.

Loren Arkotxa alkateak entzundakoari erantzun eutsan. «Kargu honek eskatzen dauena beteten dogu. Beste alde batetik, herrigintzea, nahiz eta herrian hasi, ez da hor amaitzen, eta ni beti ez egoteak ez dau Udalaren eguneroko zeregina eskastu», esan eban.

Onartu egin dabe Udala Udalbiltza Partzuergoan sartzeko proposamena

L.B.

Ondarroa Udalbiltza Partzuergoko kide izango da. Proposamenak Euskal Herritarrok taldearen baietza eta oposizinoko taldeen ezetza jaso eban, azken udalbatzarrean.

Loren Arkotxa alkateak gogoratu ebanez, Udalbiltza Partzuergoa martxan dago, eta 27 udalek osotzen dabe. Partzuergoak eukiko dauen funtzinoak azaldu zituan. «Euskal Herriaren eraikuntzearen alde beharra egingo dauen instrumentu juridikoa da», adierazo eban Udalburuak. Proposamenak aurrera egin eban EHren botoekin, EAJ eta EAren kontrako botuak ez ziran nahiko izan eta.

Holan, Ondarroak Udalbiltzako kide barria izateko eskaerea egin dau, eta estatutuak onartu. Udalbiltzako Kontseilu Nagusian Loren Arkotxa alkatea izango da ondarrutarren ordezkaria.

MARKINA-XEMEIN

Arrain kontserbako lantegiek arrain zuritzaileak behar ditue

L.B.

Markina-Xemeingo Lea-Artibai ikastetxeak jakitera emon dauenez, Lea-Artibai eta Debabarreneko kontserba lantegiek arrain zuritzaileak behar ditue. Interesa daukienek ikastetxeko Lanbide Zerbitzura jo behar izango dabe (Esperantza eraikina). Informazino gehiago 94 616 91 63 telefonoan lortu leiteke.

AGENDEA

LEKEITIO

Bideo emonaldia eta berbaldia: Kale Gorrian aldizkariaren aldeko Lekeitioko taldeak antolatuta, *Del PP a Intxaurrondo* bideo emonaldia egongo da, 19:30ean, Barandiaran aretoan. Ondoren, Pepe Rei kazetariak berbaldia eskainiko dau, *Droga trafikoa Euskal Herrian* gaiaren ganean.

ONDARROA

Margo erakusketea: Ramon Etxebarria Elorriagak egindako margoak jarri ditue Udalaren Erakusketa gelan.

MARKINA-XEMEIN

Upin lehiaketea: Uhagon Alkarteak, Herri Bibliotekeak eta Markina-Xemeingo Udalak I. Upin lehiaketea antolatu dabe. Beharrak zezeilaren 28rako emon behar dira, Udaletxean.